

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	941.128 Erakundeen Arteko
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	Konpromisoak
		941.128 Compromisos
		Institucionales

1.- Estatuarentzako Kupoa

Urriaren 25eko 29/2007 Legeak Euskadiko Kupoa adierazteko Metodologia onartu zuen 2007-2011 bosturtekorako, 2007ko uztailaren 30eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabakiaren arabera. Aipatutako Legearen indarraldia amaituta, beste Legerik ez denez egin, lehen azken xedapenean ezarritako luzapen-araubidea aplikatu da, eta ondorioz, 2012ko eta hurrengo urteetako kupoa Lege horren metodologiaren arabera ezarri ziren.

2017ko maiatzaren 17an Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak bildu zen, besteak beste behin betiko likidazioa erabakitzeko eta kupo likidoak eta behin betiko finantza-konpentsazioak onartzeko; baita 1441/2010 Errege Dekretuaren bidez 2007 eta 2011 arteko ekitaldietarako nahiz 2012 eta 2015 arteko ekitaldietarako Euskadira eramandako enplegu-politika aktiboak behin betiko baloratzeko, 29/2007 Legean ezarritako luzapen-araubide hori aplikatuz. Halaber, 2016. eta 2017. urteetarako behin-behineko zenbatekoa onartu ziren. Horrela, erabaki hori aplikatuz, EAEko 2017ko behin-behineko kupo likidoa 1.304.535.500 eurotan ezarri zen, ordaintzeko zenbateko gisa.

Esandako kupoa foru aldundien artean banatu behar da Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2016ko urriaren 14an onetsitako 2017rako ezarpen-indizeen arabera. Honako hauek izan ziren: Arabarako %16,45, Gipuzkoarako %32,89 eta Bizkairako %50,66.

Bizkaiari 2017rako dagokion koefizientea erabiliz, Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuari 660.877.684,30 euro ordaindu behar dizkio, 2017rako behin-behineko kupo likidoari dagokion kopurua.

Kupoaren heren bana ordaintzen da maiatzean, irailean eta abenduan, kupo likidoa dela-eta Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoa 220.292.561,44 eurokoa izan zen 2017ko maiatzeko lehen epean.

1.- Cupo al Estado

La Ley 29/2007, de 25 de octubre, aprobó la Metodología de señalamiento del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2007-2011, según acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 30 de julio de 2007. Al finalizar el plazo de vigencia de la Ley citada sin haberse promulgado nueva Ley, se ha aplicado el régimen de prórroga previsto en su disposición final primera y, en consecuencia, el cupo de los años 2012 y siguientes se determinaron según la metodología de dicha Ley.

El 17 de mayo de 2017 se reunió la Comisión Mixta del Concierto Económico para, entre otras cuestiones, acordar la liquidación definitiva y aprobar los cupos líquidos y las compensaciones financieras definitivas, así como la valoración definitiva de las políticas activas de empleo traspasadas al País Vasco mediante Real Decreto 1441/2010, tanto para los ejercicios 2007 a 2011, como los resultantes para los ejercicios 2012-2015 en aplicación del referido régimen de prórroga previsto en la Ley 29/2007. Asimismo se aprobaron los importes provisionales para 2016 y 2017 de tales conceptos. Así, en aplicación de dicho acuerdo, el cupo Líquido Provisional 2017 de la CAPV se fijó en un importe total a pagar de 1.304.535.500 euros.

El cupo citado se paga por las Diputaciones Forales de acuerdo a los coeficientes de aportación, aprobados para 2017 por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas el 14 de octubre de 2016, que resultaron ser el 16,45% para Araba, 32,89% para Gipuzkoa y 50,66% para Bizkaia.

Aplicando el coeficiente correspondiente a Bizkaia para 2017, a la Diputación Foral le corresponde un Cupo Líquido Provisional 2017 a pagar al Estado de 660.877.684,30 euros.

Abonándose el cupo por terceras partes, en los meses de mayo, septiembre y diciembre, el importe a satisfacer al Estado por Cupo Líquido en el primer plazo, de mayo de 2017 fue de 220.292.561,44 euros.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

EAEko Kupoa 2007-2011ko bost urteko epealdian ezartzeko metodologiaren Lehen Xedapen Gehigarrian aipatzen den 2017ko ekitaldirako behin-behineko finantza konpentsazioaren balorazioak, guztira, 87.216.060 euroko zenbateko orokorra zuen EAEren alde. Maiatzera bitarteko epean 14.727.885,32 eurokoa izan zen Bizkaia-ri zegokion zenbatekoa. Halaber, Enplegu Politika Aktiboei dagozkien zenbatekoak kenduta (58.097.446,95 euro), Bizkaia-ri 2017ko maiatzearan ordaindu beharreko behin-behineko kupo likidoa hau da: 147.467.229,17 euro.

Bestalde, 2017ko urtarril eta apirila bitarteko Mendekotasunaren Autonomia eta Arretarako Sistemaren gutxieneko babes-mailaren finantzazioan parte-hartzeagatik sarrera deskontatzen da, 10.878.782,87 euro dena. Beraz, maiatzeko behin-behineko kupoa 136.588.446,30 euro dira, ordaintzeko.

Era berean, 29/2007 Legeari jarraiki, 2016ko kuporen likidazioa kalkulatu ahal izan zen eta emaitzak erakusten duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak 53.973.589,54 euroko saldoa kobratu zuen. Horri, aldi bereko enplegu-politika aktiboen kenkariak gehitu behar zaizkio, Estatuaren aldeko 33.788.163,20 eurokoak direnak. Modu berdintsuan egin dira 2016ko konpentsazio finantzarioen likidazioak, fabrikazioaren gaineko zerga bereziak ituntzeagatik ezarritakoak. Emaitzaren arabera, Bizkaia-ri 634.035,23 euro ordaindu behar dizkio Estatuari. 2016ko ekitaldiaren likidazioa ere egin da, sektore elektrikoaren konpentsaziogatik, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1.949.867,94 euro ordaindu beharko ditu (konpentsazio hori desagertu egin zen CMCEren 1-2017 eta 2-2017 akordioen ondorioz). Azkenik, 2.728.652,39 euroko sarrera dagokio 2016ko likidazioaren SAADren gutxieneko mailaren finantzazioan parte hartzeagatik.

La valoración aprobada para el ejercicio 2017 de las compensaciones financieras provisionales, a las que se refiere la Disposición Adicional Primera de la metodología de señalamiento del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2007-2011, quedó fijada en un importe global de 87.216.060 euros a favor del País Vasco, siendo el importe a deducirse por Bizkaia en el plazo de mayo de 14.727.885,32 euros. Tras deducir asimismo los importes correspondientes a las Políticas Activas de Empleo por importe de 58.097.446,95 euros, resulta un Cupo líquido provisional a pagar por Bizkaia en el plazo de mayo de 2017 de 147.467.229,17 euros.

Por otro lado, también se descuenta el ingreso correspondiente a la participación en la financiación del nivel mínimo de Protección del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD) del período enero-abril 2017 por importe de 10.878.782,87 euros, con lo que el resultado del plazo de mayo, referido al cupo provisional, es un importe a pagar de 136.588.446,30 euros.

Al mismo tiempo, de acuerdo a la Ley 29/2007, se procedió a la Liquidación del Cupo del ejercicio 2016, cuyo resultado arroja un importe a cobrar por la Diputación Foral de Bizkaia de 53.973.589,54 euros. A ello hay que añadir las deducciones correspondientes a las políticas activas de empleo del mismo período por un importe de 33.788.163,20 euros a favor del Estado. Igualmente, se efectúan las liquidaciones de las compensaciones financieras para 2016, establecidas por razón de la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación, con un resultado para Bizkaia a pagar al Estado de 634.035,23 euros, y también la liquidación de la compensación por los Impuestos sobre el Sector Eléctrico del ejercicio 2016 por un importe a cobrar por la Diputación Foral de Bizkaia de 1.949.867,94 euros (compensación que desaparece tras los acuerdos de la CMCE 1-2017 y 2-2017). Por último, corresponde un ingreso por la participación en la financiación del nivel mínimo del SAAD de la liquidación del ejercicio 2016 por importe de 2.728.652,39 euros.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

Horrekin guztiarekin, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio 2016ko ekitaldiaren kupoaren likidazioa kobratzea, 24.229.911,44 euroan. Beraz, 2017ko behin-behineko kupoaren lehenengo epealdiari dagokion zenbatekoari zifra hori batuta, 2017ko maiatzean 112.358.534,86 euro ordaindu behar dira guztira.

Horrez gain, CMCEren 2017ko maiatzaren 17ko akordioan arabera, 2007-2015eko kupoen eta 2016ko behin-behineko kupoaren likidazioa erregularizatu da. Horrela, EAEk ekitaldi horien kupoari dagokion betebeharra aitortu behar du, baita sektore elektrikoaren 2011-2015 ekitaldietako eta 2016ko behin-behineko sektore elektrikoaren konpentsazio-likidazioak: 237.889.640,00 euro guztira. Horietatik, 120.514.891,63 euro dagozkio Bizkaia, bere koefiziente horizontalaren arabera, 2017ko maiatzean konpentsatzen direnak, Estatuarekin kobratzeko dauden zenbatekoekin, banakapen honekin: 15.623.878,81 euro Estatuarekin egindako inportazioen BEZaren doiketa kontzeptuari aplikatzen zaizkio, eta 104.891.012,82 euro Estatuarekin egindako barne-eragiketen BEZaren doiketa kontzeptuari.

Halaber, aipatutako CMCEn 2017ko maiatzaren 17an hartutako erabakietan oinarrituz, han ezarritako zenbatekoekin dauden aldeak erregularizatu dira. Horrela, Estatuak 2017-2021eko behin-behineko kupoak ordaintzeko epeen barruan gauzatuko dira, urteko ehuneko hauekin hurrenez hurren: 10, 15, 20, 25 eta 30. Horrela, maiatzean, 8.527.841,12 euro kobratzeko ditu Bizkaia, honela banakatuta: 6.112.303,31 euro Estatuaren egindako barne-eragiketen BEZaren doiketa kontzeptuari aplikatzen zaizkio, eta 2.415.537,81 euro kobratzeko dagoen SAADri. Kentze horren ondorioz, maiatzaren 30ean, 2017ko lehen epean kupo gisa azkenean ordaindutako zenbatekoa 103.830.693,74 euro dira.

Con todo ello, el importe a cobrar por Bizkaia en concepto de Liquidación de Cupo del ejercicio 2016, asciende a 24.229.911,44 euros. Ello, junto con el importe correspondiente al primer plazo del cupo provisional 2017, hace un total a pagar en mayo de 2017 de 112.358.534,86 euros.

Además, conforme a los acuerdos de la CMCE de 17 de mayo de 2017 se procede a la regularización de la liquidación de los Cupos de los ejercicios 2007-2015 y del Cupo provisional del ejercicio 2016, correspondiendo a la CAPV reconocer una obligación correspondiente al Cupo de esos ejercicios, así como de las liquidaciones de compensación del sector eléctrico de los ejercicios 2011-2015 y provisional del ejercicio 2016, por un importe total de 237.889.640,00 euros, de los cuales corresponden a Bizkaia de acuerdo a su coeficiente horizontal 120.514.891,63 euros, que se compensan en mayo de 2017 con importes pendientes de cobro con el Estado con el siguiente desglose: 15.623.878,81 euros se aplican al concepto Ajuste IVA Importaciones con el Estado y 104.891.012,82 euros se aplican al concepto Ajuste IVA con el Estado Operaciones Interiores.

Asimismo, en base a los acuerdos adoptados en la citada CMCE de 17 de mayo de 2017 procede una regularización de las diferencias con los importes en la misma acordados, que el Estado hará efectiva en los plazos de pago de los cupos provisionales 2017-2021 en porcentajes anuales del 10, 15, 20, 25 y 30 respectivamente. Corresponde así, en el plazo de mayo a Bizkaia una regularización del pendiente de cobro por importe de 8.527.841,12 euros, con el siguiente desglose: 6.112.303,31 euros se aplican al concepto Ajuste IVA Operaciones Interiores con el Estado, y 2.415.537,81 euros al SAAD pendiente de cobro. Esta deducción hace que el 31 de mayo el importe abonado finalmente como cupo en el primer plazo de 2017 sea de 103.830.693,74 euros.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

Geroago, 2017ko uztailaren 19an, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa berriro bildu zen, eta kuporako, finantza-konpentsazioetarako eta enplegu-politiketarako 2016ko ekitaldirako behin betiko zenbatekoak onartu zituen. Halaber, Euskadiko 2017-2021 bosturtekorako kupoa adierazteko metodologia erabaki zuen. Horrela, 2017rako, Batzordeak berak 2017ko maiatzean erabakitakoak ordezkatzan dituzten enplegu-politika aktiboen eta finantza-konpentsazioen behin-behineko balorazioak onartu zituen. Horrenbestez, 2017ko maiatzeko kupoaren lehen epean behin-behinean sortutako zenbatekoak erregularizatu ziren.

Horretan oinarrituz, iraileko epean, bigarren epean, ordaintzeko 2017ko behin-behineko kupo likidoa 148.061.628,86 eurokoa izan zen, zenbateko horretatik Bizkaia SAADren gutxieneko mailako finantzazioan duen partaidetzari dagokion sarrera eta 25.416.623,53 euro deskontatuz, 2016ko kupoa likidatzearan ondoriozko sarrerarekin konpentsatuz. Hain zuzen Europako Gizarte Funtzaren sarrerak berriro formulatu ziren, ekitaldi horren likidazioa kontuan hartuz; enplegu-politika aktiboen behin-betiko zenbatekoa, beraz.

Maiatzeko epean bezala, CMCEren aipatutako erabakien arabera, iraileko epean, 8.527.841,12 euro erregularizatu behar ditu Bizkaia kobratzeko geratzen den zenbateko gisa, honela banakatuta: 6.112.303,31 euro Estatuaren egindako barne-eragiketen BEZaren doiketa kontzeptuari aplikatzen zaizkio, eta 2.415.537,81 euro kobratzeko dagoen SAADri. Horregatik guztiagatik, 2017ko behin-behineko kupoaren bigarren epean 102.784.807,33 euro ordaindu ziren.

Abenduko hirugarren eta azken epean ordaintzeko 2017ko behin-behineko kupo likidoa 148.020.595,12 eurokoa izan zen, zenbateko horretatik SAADren gutxieneko mailaren 8.416.948,13 euroko finantzaziorik dagokion sarrera deskontatuz.

Posteriormente, el 19 de julio de 2017, vuelve a reunirse la Comisión Mixta del Concierto Económico y aprueba para cupo, compensaciones financieras y políticas activas de empleo los importes definitivos para el ejercicio 2016. Asimismo, acuerda la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2017-2021, aprobando para 2017 unas valoraciones provisionales de las compensaciones financieras y de las políticas activas de empleo que sustituyen a las acordadas por la propia Comisión el 17 de mayo de 2017, procediéndose a regularizar las cuantías provisionalmente devengadas en el primer plazo del cupo de mayo de 2017.

En base a ello, el cupo líquido provisional 2017 a pagar en el plazo de septiembre, segundo plazo, ascendió a 148.061.628,86 euros, descontándose de dicho importe el ingreso correspondiente a la participación de Bizkaia en la financiación del nivel mínimo del SAAD, que alcanza los 11.332.356,88 euros, y 25.416.623,53 euros en compensación con el ingreso por liquidación del cupo 2016, derivado de una reformulación de los ingresos del Fondo Social Europeo correspondientes a la liquidación de ese ejercicio y consecuentemente del importe definitivo de las políticas activas de empleo.

Al igual que en el plazo de mayo y conforme a los referidos acuerdos de la CMCE, corresponde en el plazo de septiembre a Bizkaia una regularización del pendiente de cobro por importe de 8.527.841,12 euros, con el siguiente desglose: 6.112.303,31 euros se aplicaron al concepto Ajuste IVA Operaciones Interiores con el Estado, y 2.415.537,81 euros al SAAD pendiente de cobro. Por todo ello, en el segundo plazo del cupo provisional 2017 se abonó un importe de 102.784.807,33 euros.

El cupo líquido provisional 2017 a pagar en el tercer y último plazo de diciembre, ascendió a 148.020.595,12 euros, descontándose de dicho importe el ingreso correspondiente a la financiación del nivel mínimo del SAAD de 8.416.948,13 euros.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

Aurreko bi epeetan bezala, CMCEren aipatutako erabakien arabera, abenduko epean, 8.527.841,12 euro erregularizatu behar ditu Bizkaia kobratzeko geratzen den zenbateko gisa, honela banakatuta: 6.112.303,32 euro Estatuaren egindako barne-eragiketen BEZaren doiketa kontzeptuari aplikatzen zaizkio, eta 2.415.537,80 euro kobratzeko dagoen SAADri. Horrekin guztiarekin, hirugarren epean 131.075.805,87 euro ordaindu behar izan ziren, 2017ko laugarren hiruilekoan kobratzeko dagoen Estatuarekiko BEZaren doiketarekin osorik konpentsatu zena.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoarentzako finantza ekarpenak.

Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen Finantzazioari egin beharreko finantza-ekarpenak ezartzeko eta baliabideak banatzeko metodologia onetsi duen martxoaren 23ko 2/2007 Legearekin bat etorritik (2007-2011ko epealdian aplikatu beharrekoa) eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2016ko urriaren 14an hartutako erabakiak betez, foru aldundiek 2017ko ekitaldirako eginiko finantza-ekarpenen zifra osoa 9.103.216.165 eurokoa izan da. Ekitaldi bererako koefiziente horizontalen kalkulua, berriz, %16,45koa izan da Araban, %50,66koa Bizkaian eta %32,89koa Gipuzkoan.

2/2007 Legearen III. Kapituluko 19 eta 20. artikuluetan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak doikuntzaren funts orokorra ezartzen da. Ekitaldirako onetsitako tributu hitzartuen ziozko zerga-bilketaren aurreikuspenak ikusita, 2017rako doikuntzaren funts orokorraren behin-behineko zuzkidura, guztira, 101.376.699 eurokoa izan da.

Como en los dos plazos anteriores y conforme a los referidos acuerdos de la CMCE, corresponde en el plazo de diciembre a Bizkaia una regularización del pendiente de cobro por importe de 8.527.841,12 euros, con el siguiente desglose: 6.112.303,32 euros se aplicaron al concepto Ajuste IVA Operaciones Interiores con el Estado, y 2.415.537,80 euros al SAAD pendiente de cobro. Con todo ello, resultó un importe a pagar en el tercer plazo de 131.075.805,87 euros, que se compensó en su totalidad con el Ajuste IVA con el Estado a cobrar en el cuarto trimestre de 2017.

2.- Aportaciones financieras a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con la Ley 2/2007, de 23 de marzo, por la que se aprueba la Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones financieras de las Diputaciones Forales a la Financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2007-2011, y en cumplimiento de los acuerdos del Consejo Vasco de Finanzas Públicas (CVFP) de 14 de octubre de 2016 la cifra global de las Aportaciones financieras de las Diputaciones Forales para el ejercicio 2017 ha sido de 9.103.216.165 euros, y el cálculo de los coeficientes horizontales para el mismo ejercicio, de 16,45% para Araba, 50,66% para Bizkaia y 32,89% para Gipuzkoa.

La Ley 2/2007, en su Capítulo III, artículos 19 y 20, define y regula el Fondo General de Ajuste. Su dotación provisional para el año 2017, a la vista de las previsiones de recaudación por tributos concertados aprobadas para el mismo ejercicio, ha sido de 101.376.699 euros.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

2016ko urriaren 14ko H.D.E.K.ren erabakiak direla bide, eta 2007ko urtarrilaren 18ko H.D.E.K.n onetsitako egutegiarekin bat etorritz, ondoko ordainketa egutegi honen arabera gauzatu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren finantza-ekarpenen lehen epea, guztira, 768.614.883 eurokoa: otsailaren 5ean 388.614.883 euro ordaindu ziren; eta 380.000.000 euroko gainerako zenbatekoa 2017ko otsailaren 15era arte atzeratu zen.

2017ko otsailaren 15ean, Bizkaiko Foru Aldundiak jasotzeko zuen 25.571.156,71 euroko sarrera konpentsatu zen, 2016ko ekitaldiko Finantza Ekarpeneen likidazio gisa, Bizkaiak 2016ko Doiketa Funts Orokorraren likidazioari dagozkion 3.263.025,00 euroekin eta bermeen aparteko programaren 2.996.945,00 euroekin. Horrela, data horretan, 19.311.186,71 euroko zenbateko garbia kobratu zuen.

2017ko ekitaldiko ekarpenen bigarren epea, zeina lehenengoaren zenbateko berekoa baitzen, 768.614.883 eurokoa, ordainketen egutegi honi jarraiki egin zen: apirilaren 27an 238.614.883 euro ordaindu ziren; 320.000.000 euro maiatzaren 2era arte atzeratu ziren; eta gainerakoaren ordainketa, 210.000.000 euro, 2017ko maiatzaren 8ra arte atzeratu zen.

2017ko ekitaldiko ekarpenen hirugarren epea, 768.614.883 eurokoa dena, 2017ko ekainaren 27an ordaindu zen osorik.

Aipaturiko hirugarren epearekin bat etorritz, eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2016ko urriaren 14ko erabakiak betetz, Foru Aldundiak Euskal Herriko Ogasun Orokorrean 10.257.792 euro sartu zituen 2017rako Egokitzapenerako Funts Orokorraren bi herenak ordaintzeko.

En virtud de los acuerdos del CVFP de 14 de octubre de 2016, y de acuerdo al calendario aprobado en el CVFP de 18 de enero de 2007, el primer plazo de las Aportaciones Financieras por la Diputación Foral de Bizkaia, por importe de 768.614.883 euros, se sometió al siguiente calendario de pagos: el día 5 de febrero se abonaron 388.614.883 euros, y los restantes 380.000.000 euros se aplazaron hasta el 15 de febrero de 2017.

El 15 de febrero de 2017 se compensó el ingreso de 25.571.156,71 euros a recibir por parte de la Diputación Foral de Bizkaia en concepto de liquidación de las Aportaciones Financieras del ejercicio 2016, con los importes a pagar por Bizkaia de 3.263.025,00 euros correspondientes a la liquidación del Fondo General de Ajuste de 2016 y de 2.996.945,00 euros del programa extraordinario de avales, cobrándose en dicha fecha el importe neto de 19.311.186,71 euros.

El segundo plazo de las Aportaciones del ejercicio 2017, de igual importe que el primero, 768.614.883 euros, se hizo efectivo con el siguiente calendario de pagos: el día 27 de abril se abonaron 238.614.883 euros; otros 320.000.000 euros se aplazaron hasta el día 2 de mayo; y el importe restante de 210.000.000 euros se aplazó hasta el 8 de mayo.

El tercer plazo de las Aportaciones del ejercicio 2017, por importe de 768.614.883 euros, se pagó en su totalidad el día 27 de junio de 2017.

Coincidiendo con el mencionado tercer plazo, y en cumplimiento de los acuerdos del Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 14 de octubre de 2016, la Diputación Foral ingresó en la Hacienda General del País Vasco 10.257.792 euros en pago de las dos terceras partes del Fondo General de Ajuste para 2017.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

Laugarren ekarpena, aurreko epeen zenbateko berekoa zena, 768.614.883 euro, data hauetan gauzatu zen: 134.058.385,59 euro 2017ko bigarren hiruhilekoaren Inportazioen BEZaren doiketaren konpentsatu ziren, eta 71.507.062,03 euro 2017ko bigarren hiruhilekoaren barneko eragiketengatik Estatuaren BEZaren doiketarekin. Biak uztailaren 28an. Gainerakoa, hau da, 563.049.435,38 euro, 2017ko abuztuaren 15ean ordaindu ziren.

Ekarpenen bosgarren ordainketa, 768.614.883 eurokoa dena, 2017ko urriaren 15ean gauzatu zen. 2017ko urriaren 11ko Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakiek, CMCEren 2017ko maiatzaren 17ko eta uztailaren 19ko akordioen ondorioz hartutakoek, 2017ko behin-behineko ekarpenak berriz kalkulatzeko ekarri zuten. Horrela, alde batetik, 234.916,00 euroko bi itzulketa egin ziren, Eusko Jaurlaritzak 2017ko ekarpenen hirugarren eta laugarren epeetako ordainketen ondorioz egindakoak; eta bestetik, Bizkaiko Foru Aldundirako ordainketa handiagoa: 11.936.071 euro, 2017ko azaroaren 15ean Eusko Jaurlaritzako Diruzaintza Orokorrean sartu zirenak.

Ekarpenen seigarren eta azken epean, azaroaren 15ekoan, likidazio aurreko doikuntza bat egin zen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2017ko urriaren 11an Kontzertu Ekonomikoa kudeatzetik heldu diren diru-sarreraren likidazioari buruz onetsitako aurreikuspenen oinarrian, 2/2007 Legeko 23. artikuluari jarraituz; horren emaitza da Bizkaiko Foru Aldundiak, epe horretan, 1.088.934.114,00 euroko saldoa ordaindu behar duela.

Zenbateko horretatik 46.385.638,11 euro konpentsatu ziren, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren Konpentsazioen sarrera-kontuarekin, eta 165.032.189,46 euro Estatuarekin egindako Barne Eragiketen BEZaren Doiketaren sarrerarekin, CVFPren 2017ko urriaren 11ko erabakia aplikatuz (3.Bigarrena eta 3.Hirugarrena akordioa), Erakundeen arteko

La cuarta Aportación, de igual importe que los plazos anteriores, 768.614.883 euros, se hizo efectiva en las siguientes fechas: 134.058.385,59 euros se compensaron con el Ajuste IVA Importaciones del Estado del segundo trimestre de 2017 y 71.507.062,03 con el Ajuste IVA Estado por Operaciones Interiores del segundo trimestre de 2017, ambos con fecha 28 de julio. El resto, esto es, 563.049.435,38 euros se pagaron el 15 de agosto de 2017.

El quinto pago de las Aportaciones, por importe de 768.614.883 euros, se hizo efectivo el día 15 de octubre de 2017. Los acuerdos del Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 11 de octubre de 2017, derivados de los acuerdos de la CMCE de 17 de mayo y 19 de julio de 2017, avalaron un recálculo de las Aportaciones provisionales 2017, lo cual implicó, por una parte, aplicar dos reintegros de 234.916,00 euros cada uno que por tal motivo había efectuado el Gobierno Vasco tras los pagos del tercer y cuarto plazos de las Aportaciones 2017 y, por otra parte, un mayor pago para la Diputación Foral de Bizkaia de 11.936.071 euros, que se ingresaron en la Tesorería General del Gobierno Vasco el día 15 de noviembre de 2017.

En el sexto y último plazo de Aportaciones, de fecha 15 de noviembre, se procedió a realizar un ajuste preliquidatorio sobre la base de las previsiones de liquidación de los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico aprobadas por el CVFP de 11 de octubre de 2017, de conformidad con el artículo 23 de la Ley 2/2007, resultando un saldo a pagar por la Diputación Foral de Bizkaia en el citado plazo de 1.088.934.114,00 euros.

De dicho importe se compensaron 46.385.638,11 euros con la cuenta de ingreso Compensaciones del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, y 165.032.189,46 euros con el ingreso Ajuste IVA Estado Operaciones Interiores, en aplicación del acuerdo del CVFP de 11 de octubre de 2017 (Acuerdo 3.Segundo y 3.Tercero) para la regularización entre las Instituciones tras los



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

erregulaziorako, CMCEren kupo-erabakien ondorioz. Gainerako zenbatekotik, hau da, 877.516.286,43 euroetatik, 787.516.286,43 euro 2017ko azaroaren 15ean ordaindu ziren, eta 90.000.000,00 euro 2017ko abenduaren 29ra arte geroratu ziren.

3.- HKEKri lotutako zerga itunduen bilketaren gaineko informazioa. BEZaren eta zerga berezien bilketagatik egin beharreko doikuntzak.

Martxoaren 23ko 2/2007 Legearekin bat etorritik, banaketari lotutako tributu hitzartuen zioz bildutako tributu estatistikak igorri dizkio Bizkaiko Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarrerara bidal ditzan exijituriko epeen barruan. 2016ko abenduko eta 2017ko urtarril, otsail, martxo, apiril, maiatz, ekain, uztail, abuztu, irail, urri eta azaroko tributuak dira.

Era berean, horren berri eman zaie bi foru aldundiei eta Estatuaren administrazio orokorrari.

Modu berean, Foru Aldundiak 2017 ekitaldiaren banaketari eragiten dion eskudiruzko sarreraz desberdinak diren ondasun eta eskubideetan egindako zerga-bilketaren berri eman du.

Halaber, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren, Elektrizitatearen gaineko Zergaren, Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien, sektore elektrikoaren gaineko zergen eta Hidrokarburo jakin batzuen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren bilketari buruzko ziurtagiriak bidali zaizkio Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Sailburuordetzari, hiru hilekoko mugaegunetan zerga horiei dagozkien doikuntzak kalkula ditzan Estatuko Administrazioarekin zein Foru Aldundiekin (apiril, uztail, urri eta abenduaren 30a) eta urteko likidazioekin.

Estatuarekin egin beharreko doikuntzei dagokienez, 2017an estatuaren alde sortutako zenbatekoa 717.789.639,10 eurokoa izan da (189milioi lehenengo hiruhilekoan, 189 milioi

acuerdos de cupo de la CMCE. Del importe restante, esto es, 877.516.286,43 euros, 787.516.286,43 euros se pagaron el 15 de noviembre de 2017 y 90.000.000,00 euros se aplazaron hasta el 29 de diciembre de 2017.

3.- Información sobre recaudación de tributos concertados afectos al CVFP. Ajustes a realizar por recaudación de IVA e IIEE.

De conformidad con la Ley 2/2007, de 23 de marzo, la Diputación Foral de Bizkaia ha enviado al Gobierno Vasco para su remisión al Parlamento las Estadísticas Tributarias por recaudación de tributos concertados sujetos a reparto de los meses de diciembre de 2016, enero, febrero, marzo, abril, mayo, junio, julio, agosto, septiembre, octubre y noviembre de 2017, dentro de los plazos exigidos.

Igualmente, se ha informado a las otras dos Diputaciones Forales y a la Administración General del Estado.

Del mismo modo, la Diputación Foral ha procedido a informar de la recaudación tributaria en bienes y derechos distintos del ingreso en efectivo afecta a reparto del ejercicio 2017.

Asimismo, han sido remitidas a la Viceconsejería de Hacienda del Gobierno Vasco las certificaciones de recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido, Electricidad, Impuestos Especiales de Fabricación, Impuestos sobre el sector eléctrico y Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, bien para realizar con el Estado bien entre las Diputaciones Forales los cálculos de los ajustes correspondientes a dichos impuestos en sus vencimientos trimestrales y, en su caso, en la liquidación anual (30 de abril, julio, octubre y diciembre).

En cuanto a los ajustes con el Estado, su importe devengado en 2017, ha sido de 717.789.639,10 euros a favor de la Diputación Foral de Bizkaia (189 millones en el primer trimestre, 189 millones en el



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

bigarreanean, 180 milioi hirugarreanean eta 208 laugarreanean, 2016 ekitaldiko likidazioko 48 milioi euroez gain, kasu horretan Bizkaiko Foru Aldundiaren alde). Hala ere, kupoa kalkulatzean estatuarekin izandako desadostasunetatik eratorriak diren erakundeen arteko fluxuetan egindako konpentsazioen ondorioz eta EIBMren eta HDEKren aipatu diren akordioen ondorioz 1.021.553.766,30 euro kobratu dira 2017an.

Foru Aldundien Doikuntza modura, Bizkaiko Foru Aldundiak 960.948.285,74 euro ordaindu dizkio Eusko Jaurlaritzako Diruzaintza Nagusiari (269 milioi lehenengo hiruhilekoan, 258 miloi bigarreanean, 254 milioi hirugarreanean eta amaitzeko 179 milioi euro).

Ekonomi Itunaren 33. artikuluari eta Kupoaren Batzorde Mistoak 1999ko uztailaren 14an hartutako hirugarren erabakiari jarraituz, sarrera jaso zuen administrazioa ez den beste batek Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien zioz ordaindutako kuoten itzulketak erregularizatu dira. 2016ko bigarren sei hilekoari 957,96 euro dagozkio Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka eta 2017ko lehenengo sei hilekoari 8.575,10 euro Bizkaiko Foru Aldundiaren alde.

4.- Lurralde Historikoaren udal informazioa.

2017ko otsailaren 28ko Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez, Udal Finantziatorako Foru Funttsaren (Udalkutxa) 2016ko ekitaldiko Likidazioa onetsi da. Ondorioz, 61.811.619 euro Bizkaiko Foru Aldundiaren aldekoak dira, hasiera baten kalkulaturako 824.061.878 euroko aurrekontuaren eta benetan izandako 762.250.259 euroko partaidetzaren arteko desberdintasun modura.

segundo, 180 millones en el tercero y 208 en el cuarto, además de los 48 millones, en este caso favorables al Estado, de la liquidación del ejercicio 2016). No obstante, las compensaciones en los flujos interinstitucionales derivadas de las discrepancias con el Estado respecto al cálculo del Cupo y los referidos acuerdos de la CMCE y del CVFP han dado lugar a un cobro total de 1.021.553.766,30 euros en 2017.

En concepto de Ajustes Diputaciones Forales, la Diputación Foral de Bizkaia ha abonado a la Tesorería General del Gobierno Vasco un total de 960.948.285,74 euros (269 millones en el primer trimestre, 258 en el segundo, 254 millones en el tercero y finalmente 179 millones de euros).

De conformidad con el art. 33 del Concierto Económico y el acuerdo tercero de la Comisión Mixta de Cupo de 14 de julio de 1999, se han regularizado las devoluciones de cuotas satisfechas por IIEE de Fabricación por Administración distinta a la que recibió el ingreso, correspondiendo al segundo semestre de 2016 un importe de 957,96 euros a pagar por la Diputación Foral de Bizkaia, y 8.575,10 euros a cobrar correspondientes al primer semestre de 2017.

4.- Información municipal del Territorio Histórico.

Mediante acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de febrero de 2017 se aprueba la Liquidación del Fondo Foral de Financiación Municipal (Udalkutxa) del ejercicio 2016, resultando un saldo a favor de la Diputación Foral de Bizkaia de 61.811.619 euros, como diferencia entre el importe presupuestado inicialmente de 824.061.878 euros y la participación real de 762.250.259 euros.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak 21. Compromisos Institucionales	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak 00. Compromisos Institucionales	941.128 Erakundeen Arteko Konpromisoak 941.128 Compromisos Institucionales

Ekarpenei buruzko 2/2007 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Lurralde Historikoetako Foru Organoek urtero ezarriko dute Toki Erakundeek itundutako sarreretan izango duten partaidetza. 2017rako 795.100.661 eurokoa izango dela kalkulatu da. Toki erakundeei jakinarazitako kopuruak likidazioaren aurreikuspena egiteko dira (HDEK-k Ekonomi Itunaren sarrerak kontuan hartuta egindako likidazioaren aurreikuspenetatik eratorria). Urrian horren berri eman zitzaien udalerriei, Finantzen Lurralde Kontseiluaren bidez, eta ekitaldia bukatu osteko lehenengo hiruhilekoan likidazioa gauzatu beharko dute, ekarpenen likidazioa gauzatu ondoren (Toki ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 41.4 eta 41.5 artikulua).

Aurreko ekitaldietan moduan, Udal Ahalegin Fiskalen 2015. urteko Ziurtagirien ereduak egin dira eta Lurralde Historikoko udal guztiei bidali zaizkie, zertarako-eta Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak (ondoren igorriko zaizkie Ministerio horri) Bizkaiko udalerriek estatuko tributu ez hitzartuetan duten 2017ko partaidetzaren banaketa zehaztu ahal izateko, Foru Aldundiak banatuta, Ekonomi Itunaren 51. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Foru Aldundiak, haren mendeko udalerrien gainean duen finantza tutoretzarako ahalmena erabiliz, baliabide maila jakin bat bermatu beharko du udalerrri guztietan. Maila hori ez da izango, inola ere, araubide erkidearen legeria aplikatuta Lurraldeari dagokiona baino txikiagoa, betiere Foru Aldundiak egokitzen hartutako irizpideak erabiliz kopuru horiek banatzeko duen ahalmenari kalterik egin barik (Bigarren xedapen gehigarria, LHL eta 117.2 art. ETL).

Según establece la disposición adicional cuarta de la Ley 2/2007, de Aportaciones, los Órganos Forales de los Territorios Históricos establecerán anualmente la participación de los Entes Locales en los ingresos concertados, que para 2017 tiene un importe presupuestado de 795.100.661 euros. Los importes resultantes puestos a disposición de los entes locales son objeto de una previsión de liquidación (derivada de las previsiones de liquidación del CVFP en relación a los ingresos del Concierto Económico) puesta en conocimiento de los Municipios en el mes de octubre, a través del Consejo Territorial de Finanzas, y están sujetos a liquidación una vez finalizado el ejercicio, en el primer trimestre siguiente, una vez realizada la liquidación de las Aportaciones (artículos 41.4 y 41.5, Norma Foral 9/2005 de Haciendas Locales).

Como en ejercicios anteriores, se han elaborado los modelos de Certificaciones del Esfuerzo Fiscal Municipal 2015 y enviado a todos los Ayuntamientos del Territorio Histórico, con el fin de que desde el Ministerio de Hacienda y Función Pública, a quien se remitirán posteriormente, puedan proceder a la determinación de la participación de los municipios de Bizkaia en los tributos No Concertados del Estado de 2017, distribuidos por la Diputación Foral conforme al artículo 51 del Concierto Económico.

La Diputación Foral, en el ejercicio de las facultades de tutela financiera que legalmente le corresponden sobre sus municipios, deberá garantizar para el conjunto de los mismos un nivel de recursos que en ningún caso será inferior al que correspondiere al territorio por aplicación de la legislación de régimen común, sin perjuicio de la facultad de la Diputación Foral para efectuar la distribución de dichas cantidades con los criterios que estime convenientes (LTH, disposición adicional segunda y asimismo art.117.2 LILE).

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA

Gastuen Egitaraueen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Saila: 21 ERAKUNDEEN KONPROMISOAK
Departamento: COMPROMISOS INSTITUCIONALES
Egitaraua: 941128 ERAKUNDEEN KONPROMISOAK
Programa: COMPROMISOS INSTITUCIONALES

HEL OBJ	EKI ACC	ADI IND	DESKRIPZIOA DESCRIPCIÓN	ZENBATEKO/CUANTIFICACION		EGITEA REALIZACIONES
				HASIERA/INICIAL	ORAIN/ACTUAL	
1	1		ERAKUNDEEN KONPROMISOAK ZEHAZTU ETA ORDAINTZEA DETERMINACIÓN Y PAGO DE LOS COMPROMISOS INSTITUCIONALES			
			ERAKUNDEEN KONPROMISOAK BERRIKUSTEA ETA KUANTIFIKATZEA REVISIÓN Y CUANTIFICACIÓN DE LOS COMPROMISOS INSTITUCIONALES			
		1	Estatuari ordaindu beharreko kupoa Determinación del Cupo al Estado	4	4	4
		2	Ekarpenak zehaztea Determinación de las Aportaciones	8	8	8
		3	Doikuntzak aurreikustea (Estatua eta foru aldundiak), parte hartzea zerga itundu gabeeetan eta abar. Previsión de ajustes (Estado y DD.FF.), participación en ingresos no concertados. Etc.	8	8	8
	2		ESTATUAREKIKO HARREMANEN ONDORIOZKO ORDAINKETAK EGIN ETA KONTABILIZATZEA REALIZACIÓN Y CONTABILIZACIÓN DE LOS PAGOS DERIVADOS DE LAS RELACIONES CON EL ESTADO			
		1	Kupoaren ordainketa proposamenen kopurua Número de propuestas de pago de Cupo	3	3	3
		2	BEZ eta zerga berezien bidezko diru-bilketari doikuntzak ordaintzeko proposamen kopurua Número de propuestas de pago de Ajustes a la recaudación por IVA e IIEE	8	8	8
	3		FINANTZAZIOAREN BARNE SISTEMATIK ONDORIOZKO ORDAINKETAK EGIN ETA KONTABILIZATZEA REALIZACIÓN Y CONTABILIZACIÓN DE LOS PAGOS DERIVADOS DEL SISTEMA INTERNO DE FINANCIACIÓN			
		1	Autonomia Erkidegoari ekarpenak ordaintzeko proposamen kopurua Número de propuestas de pago de Aportaciones a la Comunidad Autónoma	7	7	7
		2	BEZ eta zerga berezien bidezko diru-bilketari doikuntzak lurralde historikoekin ordaintzeko proposamen kopurua Número de propuestas de pago de Ajustes a la recaudación por IVA e IIEE con los TTHH	8	8	8